

Txoritokieta'ko jentilarria

JOXE RAMON FERNANDEZ

HOGEI urtekin, burua proiektoz beteta nuen, orain ere bai noski, baina ez lehen bezala. Beste kontinenteetako izotzeko mendiekin amets egiten nuen; asko irakurtzen nuen lehen mendizaleei buruz. Inoiz, beldurgarriko hormaren haietako bat eskalatzea pentsatzen nuen. (Eiger, El Capitán, Aconcaguako hego aurpegia, Baltoroko dorreak.) Izen horiek hamaika aldiz amets egin erazten zidaten.

Ez naiz asko atera, mendizale arrunt baten: Picos, Auñamendiak, Sierra Nevada, Urbión eta Alpesetara.

Pixkanaka, pixkanaka, mendi haiek igotzea ez zela hain derrigorrezkoa pentsatzen hasi nintzen eta nere inguruetako mendietan edertasuna aurkitu nuen.

Gaur aurkezten dudana jentilarria, adibidez, Orereta eta Donostiatik oso hurbil dago, baina zoritxarrez ez gara oso aztertzaileak eta ez gara konturatzen historiaren altxorrez inguratutak gaudenik. Ba, Burdin-

aroko monumentu hau gure begien aurrean edukitzeko ba daude itinerario batzuk, baina hemen aipatuko dudana interesgarrienetariko bat dela uste dut.

Gure ibilialdiari hasiera emateko, Donostiako Altxa auzo araino hurbilduko gara; gaur egun Donostiako auzo bat da, baina herri independente bat izan zen, eta nortasun handiko gainera.

Peregrinene'ko hormetan, hareharrizko gurutzea.


Txoritokieta'ko jentilarria.

Altxako elizatik ateratzen, Lau-Haizeta etxe-tabernaruntz habitzen den errepidetik zuzendu beharko ditugu gure pausoak. Autopista, zubi baten gainetik pasako dugu eta berehala, errepide zabaletik jarraituz, Lau-Haizetaraino iritsiko gara; hementxe bi bide hasten dira, bata eskubira, Martutene eta Egiara habitzen dena, guk ordea, lojiki, bestea artuko dugu: ezkerrekoa, S. Markos eta Txoritokiataruntz habitzen dena. Handik oso gutxira Peregrinene base-rritik pasako gara; diotenez, aintzinean «Santiago de Compostela»-ra zihoan gal-tzara alde honetatik pasatzen zen eta baserri hau posadako moduan funtzionatzen zen, eta horrela dirudi, bere horma batean hareharrizko gurutzea ikusiz.

Aurrerago Martiotegi, Irazuene, Alano, Putzueta eta Bordazar baserrietatik pasako gara. San Markos mendia oso hurbil izango dugu eta lojika pixka batekin Txoritokiataruntz habitzen den bidezidorra aldapatsu bat hartuko dugu, bidezidor hau pista batean amaitzen da eta pista hau pixka bat jarraituz, harrobi batetara iritsiko gara; hantxe bertan, ezker aldean, beste bidezidor bat hasten da, Astigarragako Benteetara jeisten dena; ba, bide hau hartuko dugu Txoritokieta tontorra gure eskubian utziz. Berrehun metro ibili eta gero ler baso baten ertzetik ibiliko gara; han utziko dugu bidea eta alda-pa gora bost minutu eskas igo eta gero, gure helmuga ondoen izango gara.

Itsas-gaineko 270 metrotan kokatua dago, Astigarraga eta Oreretako termino munizipal- en muga markatzen du; hareharrizko laja bat da, 1,60 metrotako bere altuera izanez, 30 zentimetrotako lodiera izanez. Lehen esan du-dan bezala Burni-aroka da (800-300 J.a.) bere alde batean gurutz bat markatua du.

Eta horrela oso urrun joan gabe, igande baten goiz patxadatsu batean, gure aintzina-ko arbasoen obra bat mirestu dezakegu, eta suerte pixka batekin, oso urrun, Aitzkorriko tontor elurtuak ikusi ahal izango ditugu.



Egilearen argaskiak.